

Luis Mari Bandres Unanue: euskal kulturaren bidegile

Joan den abenduan Donostiako Santa Maria Baselizan Luis Mari Bandres zenaren hileta elizkizunean Xabier Azkuek prestatuta bertso hauek abestu zituen elhuyarkide batek:

Abertzale on, kulturgile fin
afizioz txistulari
ingeniaritzan doktore eta
irakaskuntzan gidari
fakultatean fisika ematen
euskararen aitzindari
gure Elhuyar sortu zuena
eta lehen lehendakari
Zientziazaleoi ondare aparta
utzia diguk opari
abiatzeko oinarri onak
eta idazlan ugari
eskerrik asko guztiagatik
bihotzez agur, Luis Mari
txistu-doinuak lagun hartuta
gugan luze bizi hadi

Lerro gutxitan nekez lor daiteke, nire ustez, Luis Mari Bandresen jorrotutako ibilbidearen deskribapen zehatzagorik. Batzuentzat Luis politikari oso ezaguna izan zen, beste batzuentzat karrera-ikasketetan eduki zuten irakasle aparta, talde multzo handi batek prentsan azaltzen ziren bere artikuluengatik ezagutuko zuen Luis eta beste askorentzat, elkarrizketa mamitsuetan sartzeko beti prest zegoen lagun ona.

Nekrologiak idazterakoan, kazetari batek Luis errenazentista zela esan zuen¹ eta beste batek ilustrazio garaiko Azkoitiko zaldunekin konparatu zuen². Argi dago bi adibide horietan kazetariak gizon aparta bati buruz idazten ari zirela adierazi nahi zutela. Horrela ikusita, nik esango nuke Luisek landu zuen arlo bakoitzarekin posible izango litzatekeela artikulua luze bat idaztea bere pentsamendua eta ekarpenak aztertuz.

Idazlan honi muga batzuk jarri behar zaizkionez alde batetik eta artikuluari jarritako izenburuak adierazten duenez bestetik, euskal kulturgintzan Luisek egindako ekarpenak kontuan hartuko ditugu nagusiki. Honekin, ez ditugu Luisek beste arloetan egindako ekarpenak gutxietsi nahi, baina gure ustez, euskal kulturaren inguruan jorratu zuen bidea guztiz aparta izan zen eta hori izango da hemen azpimarratzen saiatuko garena.

1. HASIERAKO URRATSAK

Luis Mari Bandres Unanue Pasai Antxon jaio zen 1944. urtean. Bere hitzak erabiliz:

Gure Pasai Antxon, 1944ko gaueko hamarrak aldean edo, Otsailaren hamazortzi batean, zehaztasun gehiagorik Ostegun Gizen eguna izanik, Zumalakarregi kaleko bosgarren atarian eta bigarren solairuan ikusi nuen argia lehen aldiz. Garai hartan ohitura zen bezala, bakoitza bere etxean jaio izaten zen eta txorakeria handirik gabe, gainera³.

Eta garai hartan Pasai Antxon, beste Euskal Herriko herrietan bezala, eskolan, lagunekin kalean jolasten eta Parroki inguruko ekintzek betetzen zuten ume baten denbora. Eta testuinguru horretan, Parrokiko koruan parte-hartzean hasi zen Luisen lehenengo hurbilketa musikaren mundura:

Gure haurtzaroan urtea zeharo ondo antolatuta geneukan: ziba-aroa, kanika-aroa, Maiatzean eta Ekainean egur bila San Juan sua egiteko, gero gure San Ferminak (hau bai zen aro ederra!), e. a. Baina, ez urtea bakarrik, eguna ere baizik. Goizean, hamaiak arte, eskola. Gero ordu bi terdietatik seiak arte beste horrenbeste, eta seietan irten eta gutako gehienak "kanto"-ra joaten ginen, han Don Luis Agirreren (apaizaren) eskutik gure pinito musikalak eta solfeoaren lehen urratsak ematen genituen³.

Lehen esan dugunez, kronika hau garai hartako mutiko askok kontatuko luke tenarekin bat dator. Hala ere, Luisen kasuan denborarekin garrantzi handia hartuko zuten berezitasun batzuk azpimarratu behar ditugu. Koruaz aparte, Luisek

1. AMATIÑO. "Errenazentista bat gutxiago". In: <http://eibar.org/amatiño>, 2009/12/8.
2. ANGULO, Gorka. "Luis Maria Bandres Unanue, un caballero de la cultura vasca". In: *El País*, 2009/12/05.
3. BANDRES UNANUE, Luis Mari. "Nire lehen urteetako Pasaia". In: *Pasaia. Pasaiaiko udalaren aldizkaria*, 2, 1986, 16. or.

musikan sakontzen jarraitu zuen, hasieran bere herrian musika-bandako zuzendaria zen Felix Betetaren eskutik Hilarion Eslabaren solfeo-metodoa jarraituz. Metodo horrekiko miresmena geldituko zitzaion, 1985. urtean euskaratu eta argitaratu baitzuen lehenengo partea eta 1987. urtean bigarrena:

Denok dakigu D. Hilarionek bere metodoa idatziz geroztik beste metodo berri asko kaleratu dela eta bestalde, musikaren didaktikak bide berriak urratu dituela. Hala eta guztiz ere, klasikoak klasiko direla eta, lan horri ekiteak pena merezi zuela pentsatu nuen⁴.

Eta Luisen hitzak jarraituz:

Behin maila batetaraino heldu eta... azkenikaldiune zirrargarria iristen zitzaigun: instrumentua aukeratzearena alegia. Nik ez dakit zergatik baina txistua aukeratu nuen³.

Lehenengo txistu-ikasketan herrian bertan amaitu ondoren, txistu-mailan sakontzen jarraitzeko, bere laguna zen Joxan Altunarekin batera Donostiako kontserbatoriora abiatu zen⁵. Han Isidro Ansorena maisu handiaren gidaritzapean "txistulari" bihurtu zen. 1959an Euskal Herriko Txistularien Elkarteko bazkide egin zen⁶. Maila egoki batera iritsi zela ez dago zalantzarik, Ansorena berak 1962. urtean Donostiako Udal Txistularien Bandan silbotari plaza eskaini ziolako. Eta eginkizun horretan jarraitu zuen Luisek bolada batean (dirudienez ia bi urtez). Azkenean, bere irakasle lanek, eta nagusiki hasitako goi-mailako ingeniari-ritza ikasketek, denbora osoa eskatzen ziotenez, postua utzi beharrean aurkitu zen. Luis berak Ansorenari proposatuta, bere laguna Joxan Altunak hartu zuen postu hori eta honek bandan jarraitu zuen jubilatuta arte.

Hala eta guztiz ere, Luisen euskal musikaren aldeko hurbiltasuna ez zen txistura bakarrik mugatu. Alboka eta dultzaina ere menperatzen zituen. Albokaren kasuan gainera, Luisek *Ez dok Amairu* talde ospetsuan parte hartu zuen hasiera-hasieratik. Horrela kontatzen zuen Lurdes Iriondok elkarrizketa batean 1966. urtean:

Guk, antziñako abesti jatorrak berpiztu egin nai ditugu: eta, era berean, abesti berriak sortu, era guzitakoak. Orregatik, egin zagan kontu, "Ez dok amairu" taldean, Mikel Laboa'k eta Yon Mingo'k antziñako abesti zaharrak abesten dituzte. J. A. Villar'ek, berriz, modako abestiak, euskerara itzulita. Benito Lertxundi'k ere ori egiten du, eta gañera berak sortzen ditu berriak Julian Lekuona, Xabier Lete'k eta nik, problema eta protesta batzutat itzegiñaz abesten degu. Atzenik, "Biuurriak" eta "Yolos" taldeak, "ye-ye" abesti ritmikoak. Baita ere, Arza anaiak txalaparta jotzen dute, eta Luis Bandres'ek alboka... Ikusten dezun bezela, denetik dago⁷.

4. BANDRES UNANUE, Luis Mari. *Eslaba. Solfeo-metodoa*. Donostia: Elhuyar taldea, 1987, 31. or.

5. BANDRES UNANUE, Luis. "Joxan Altuna lagunari". In: *Txistulari*, 204, 2005, 3. or.

6. In: *Txistulari*, 17, 1959, 15. or.

7. ERGOIEN, A.J. "Lurdes Iriondo. Bihotza eta adimena bere abestietan". In: *Zeruko Argia*, 198, 1966.

Eta beste elkarrizketa batean, horrela zion Luisek bere talde horretako parte hartzeari buruz: “Zazpi edo zortzi urtez jarraitu nuen bertan, ezkondu nintzen arte”⁸. *Txistulari* aldizkarian ere, garaiko beste ekitaldien kroniken artean albo-kari bezala Luisi buruzko informazioa aurki daiteke⁹. Esan beharra dago beti oso harro sentitu zela mugimendu kultural horretan partaide aktiboa izan zelako.

Hemen musikari hainbesteko garrantzia eman badiogu, horri esker Luis euskal kulturara, eta euskarara, hurbildu zelako da. Izan ere, horrela kontatzen zuen berak nola hasi zen euskara mundura gerturatzen:

Garai hartan Pasai Antxon ez zen euskararik entzuten kaleetan, eta nik etxean ere ez, gurasoak euskaldunak izan arren. Beti erdaraz hitz egiten genuen.

Euskararekin izan nuen lehen kontaktua herriko koruan izan zen. Gero, eta oraindik ez dakit zergatik, euskara ikasi behar nuela erabaki nuen, 14 urterekin⁸.

Eta ondo ezagutzen zuen Amatiñok ere gauza bera idatzi zuen: “txistua jo-tzetik heldu zen euskara ikastera”¹.

Hala ere, nahiz eta txistua izan zen euskal folklorera eta horrela euskaldun-tze-prozesura gerturatzen lagundu zuena, berak Parrokiko koruan egin zuen egonaldiari ere garrantzia handia ematen zion. Argia aldizkarian 1992. urtean egin zioten elkarrizketa batean horrela azaldu zen:

Beregan eragin handiena izan duen gizona Luis Agirre apaiza dela dio, berari esker jarri bait zen euskararekin kontaktuan⁸.

Musikaz gain, formazioaren ikuspuntutik, Luis ingeniari-tza aldera mugitu zen. Hor ere bide oparoa jorratu zuen. Hasieran peritu industrialaren titulua lortu zuen (1965), gero Donostian ireki berria zen Nafarroako Unibertsitateko Goi Mailako Ingeniaritzara salto egin zuen. Han 4. promozioko partaide izan zen eta 1970. urtean titulua eskuratu zuen Elektrizitate espezialitatean. Beharbada hasieratik irakaskuntza erakargarria egiten zitzaiolako (Don Bosco ikastetxean hasi zen bere ibilbidea irakasle gisa), Luis doktoregoan sartzera animatu zen (garai hartan ingeniari-tzan ez zen batere ohikoa tesia egitea) eta 1976. urtean bere tesia defendatu zuen. Gaia hau izan zen “El problema del ruido y la sordera en la industria” eta berea izan zen Donostiako Goi Mailako Ingeniaritza Eskolaren historian defendatu zen seigarren tesia.

2. 1970-1985: BIDE BERRIAK URRATZEN

70. hamarkadaren hasieran Luisek landuta zituen hurrengo urteetan, edo hobeto esanda, bere bizitza osoan, bere ibilbidea definituko zuten ezaugarriak: euskal kulturarekiko eta bereziki euskararekiko konpromisoa eta zientzia eta tek-

8. IBAN, Amagoia. “Uste dut hartu dudan bidetik gehiago egin dezakedala euskeraren Alde”. In: *Argia*, 1395, 1992.

9. In: *Txistulari*, 50, 1967, 23. or.; 61, 1970, 13. or.; 63, 1970, 18. or.

nologiaren aldeko interesak. Eta konpromisoak eta inplikazioak berehala hasi ziren nabaritzen.

Garai hartan, Euskal Herriko Txistularien Elkartea bi urtean behin egoitzaz (hiriburuz hiriburu mugitzen zen) eta zuzendaritzaz aldatzen zen. Eta 1971-72 urteetarako Donostian kokatua izatea tokatzen zen. Ohikoa izaten zen bezala, Donostia aldeko txistulari batzuk bildu ziren elkartearen zuzendaritza erabakitzeko. Haien artean Luis Bandres zegoen. Taldea osatu ondoren, hurrengo pausoa arduren banaketa zen. Eta elkarteari kutsu berria emateko intentzioarekin, Luis bera izendatu zuten *Txistulari* aldizkariaren zuzendari. Esan beharra dago elkartearen bazkide-kopurua 3.000 inguru zela eta aldizkariak, hutsuneak bete asmoz, askotan bere orrietan euskal kulturaren inguruko informazio eta eztabaidak argitaratzen zituela. Bestalde, gogoratu behar dugu ordurako Luis goi mailako ingeniaria zela eta garai hartan txistularien artean hori ia harribitxi bat zela. Ziur aski hau izan zen Luis Bandresek euskal kulturaren inguruan, arlo zabalean kontsideratuta, hartu zuen lehenengo ardura. Geroztik, euskal kulturarekiko zuen atxikimenduak ardura-mota desberdinak hartzera bultzatu zuen.

Ekintza hauei paralelo Luis beste mugimendu berri batean sartuta zebilen. Goi mailako ingeniariartzaren ikasketen garaian, zientzia eta teknologia arloetan euskarak erakusten zituen gabeziei erantzun baten bila hasi zen. Beste kasuetan bezala, Luis Bandres berak idatzitako hitzak erabil ditzakegu garai hartako giroaz jabetzeko:



Euskal Herriko Txistularien Elkartearen zuzendaritza 1971. urtean. Zutik eskuin aldean Luis Bandres

1965ean gaude. Ni Donostiako Goi Mailako Ingeniaritza Eskolara gaur egun Koldo Mitxelena dagoen eraikuntzan sartu berria naiz. Zeresanik ez, garai hartan euskara, euskal kultura, hots, gure euskal munduarekin erlaziorik zeukan guztia erabat baztertuta zegoen Unibertsitateetik eta edonondik eta nik nirekin euskaltzaletasuna nekaren. Urte hartan, kurtso berean, Andoni Sagarnarekin egin nuen topo lehen aldiz. Gure artean gure zaletasun komuna, Euskal Herriaren alde lan egitekoa, hain zuzen, laster plazaratu zen eta, gazteak ginenez, berehala jarri ginen martxan. Honela, gure gainontzeko ikaskideen artean euskara nortzuk jakingo zuten bilatzeari ekin genion, geroago haiekin batera euskara irakasteko edo zientzia euskaraz lantzeko talde bat osatzeko asmoarekin. Honela, eta beste lagun batzuekin batera, Eskolako EKT Euskal Kultur Taldea abiatu genuen¹⁰.

[...] 1968an Euskal Kultur Taldea (EKT) antolatu genuen eta horren bidez euskarazko eskolak (euskara irakasteko, noski, ikasgeletan euskara erabiltzea amets hutsa baitzen), euskal kultura eta euskara teknikoa, besteak beste, lantzen hasi ginen¹¹.

EKT-ren eragina eskolako ikasgelen paretetatik at zabaldu zen. Horren adibide dugu Andoni Sarriegik idatzi zuena:

[...] bi gauza suertatu zitzaizkidan urte haietan. Batetik, Ordiziako Jakintzak (Ikastola kudeatzen zuen elkarteak) Euskal Kultura gaitzat hartuta antolatutako saiakera-sariketa eta bestetik 1971 aldera Donostiako Ingeniari Eskolako EKTk (Euskal Kultura Taldea) antolatutako teknika-arloko euskarazko idazlanentzako sariketa. Bietara bidali nituen nire lantxoak eta bietan suertatu zitzaidan banatutako sari bakarraren zati bat. Bi sariketek ere ahalegin handia eskatu zidaten aurkeztu nituen idazlanak idazteko, gaiaren aldetik adina edo gehiago hizkuntzaren aldetik zoritxarrez¹².

EKT taldearen sorrera Elhuyar Kultur Elkartearen abiapuntutzat hartzen da. Urteetan zehar erakunde honek hartu duen garrantziaren ondorioz eta euskal kulturgintzan hainbeste ekimenen bultzatzailea izan denez, Luis Bandres eta gainontzeko sortzaileek orduan hartu zituzten erabakiak, eta lehenengo ekintzak bideratzeko moduak, idatzita utzi dira artikulu eta elkarrizketa desberdinetan. Beharbada, une haietan erabaki haien garrantziaz jabetzen ez zirenez, data batzuk ez daude guztiz finkatuta.

1972. urtea. Iluntzean bi gazte —Juanjo Gabiña eta Mikel Zalbide— Don Bosco ikastetxerako bidean gora doaz moto zahar batean. Bertan Luis Bandresekin hitz egitekotan dira; euskara eta zientzia uztartzeko proiektuari buruz proposamen zehatz bat egin nahi diote: Injeneru Eskolan elkarrekin aritutako lagunak eta orain ikasle diren batzuk talde batean elkartzea. Elhuyar Kultur Elkartearen hazia izan zen bilera hori¹³.

Joanjo Gabiñak, orduko ingeniartzako eskolan ikasle zenak, horrela kontatu zuen Luis Bandresen parte-hartzearen garrantziari buruz:

10. BANDRES, Luis. "Beste euskaltzain donostiar bat: Andoni Sagarna". In: <http://amaraberri.hitza.info/paperekoa/2007-10-25/p00002013/>.htm.

11. MEÑIKA, M^a Karmen. "UEU dela eta". In: *Argia*, 1997/05/01.

12. SARRIEGI, Andoni. "Idazmakinetatik itzulpen memoriatar". In: *Senez*, 2009, 37 (<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20091026/sarriegi>).



Luis Bandres txistua jotzen
2002ko Antiguako pilota
txapelketan.

Sekulako zorrea izan zen Luis aurkitzea. Injineru Eskolan berarekin ibilitako batzuk berehala sartu zituen taldean eta guk ere, gure aldetik, beste askori jakinarazi genien gure proiektua¹³.

Euskarak zientzia eta teknikaren aldera egingo zuen bide luzea abian jarrita zegoen. Eta Luis Bandres ibilbide horren aktore nagusienetariko bat bihurtu zen:

[...] beste zenbait ekintzen artean, bertan zientzia eta teknika euskaraz lantzeari heldu genion. Hutsetik abiatu ginela esaten badut, ez naiz egiatik oso urruti ibiliko: Gerra aurretikako guztiz garbizaleak ziren “Pisia” eta “Kimia” izeneko bi liburuxkak, borondate onez egindako hitz-zerrenda zientifiko bat edo beste, eta kitto. Pentsa dai-

13. KALTZADA, Pili. “Erantzukizun sozial handia genuela sentitzen genuen”. In: *Elhuyar: Zientzia eta Teknika*, 1997/11/1.

tekeen bezala, hasiera horretan lortutako uzta ez zen gizaratearen aurrean jartzeko, ezta gutxiagorik ere. Baina urteak aurrera zihoazen eta eskolan euskararen taldean ibilitako batzuk, ikasketak amaitu ondoren, lanpostuaren bila irten ginen¹⁴.

Eta taldea era bitxi batean abian jarri zen. Asteazken zehar bakoitzaren eginkizunak arazo izan zitezkeela kontuan hartuta, erabaki egokiena bilerak larunbat arratsaldean egitea zela iruditu zitzaien:

[...] Donostiako San Martzial kaleko San Ignazio elkarteak gela batean larunbat arratsalde batean gure lehen bilera egin genuen: Mikel Zalbide, Andoni Sagarna, Jesus Mari Goñi, Juanjo Gabiña eta neu (*Luis Bandres*), oker ez banaiz (bigarren bileran edo, Iñaki Azkune etorriko zen). Eta horrela, larunbatero arratsaldez elkartuz, gure artean lanak banatuz eta batzuek besteengandik ikasiz, gure eraikuntza hasi genuen¹⁴.

Hor ikusten da hasieran elkarteak zuen amateur edo lagun arteko natura. Elhuyar Elkarteak osatuz gero, norbaitek hartu behar zuen taldearen zuzendaritza. Eta sortzaileek horrela erabakita, Luis Bandres aukeratu zuten postu hori betetzeko. Bere gidaritzapean Elhuyar indartzen eta bere helburuak betetzeko gero eta esparru konplexuetakotara zabaltzen joan zen. Eta ardura hori ez zuen utzi Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua izendatu zuten arte:

Niri bere (Elhuyarreko) lehenengo zuzendaritza hartzea egokitu zitzaidan, baina 1985ean Jaurlaritzara joan nintzenez, Andonik (Sagarnak) hartu zuen betekizun hori¹⁰.

1974. urtean beste pauso garrantzitsua eman zuen Elhuyarrek eta lehen aldiz izen bereko aldizkaria kaleratu zen Luis Bandresen zuzendaritzapean. Lehenengo alean elhuyarkideen ustez aldizkariak bete beharko lituzkeen helburuak finkatzen ziren eta xede horien definizioan, zalantzarik gabe, Luis Bandresen eragina funtsezkoa izan zen. Horrez gain, Luis berak honako izenburua zuen artikulua idatzi zuen: "Fisikaren bideetatik abiatzen". Hau zen artikulua horren lehen paragrafoa:

Azkeneko urte hok arte fisikako konzeptuak teoria bidez eman izan dira eta bide hori, bakarra, ez dela egokiena edo errazena frogatua ere dago. Beraz, konzeptu horiek ikasteko edo, hobeto esan, irakasteko, beste bideren baten laguntza aurkitu behar da eta, zorionez, aurkituta dago, hots, saiakuntzen bidea¹⁵.

Luis Bandresek artikulua horrekin fisikaren inguruan hurrengo urteetan argitaratu zituen idazlan multzo handi bati hasiera eman zion. Horrekin ondo erakusten zuen fisikarekiko zuen miresmena (bere parte-hartzea UZEIko *Fisika* eta *Kimika* hiztegiaren artikulua nagusiak idatziz gogora ekarri behar dugu^{16,17}). Dena den, Luis Bandresen kezka ez ziren fisika inguruko gaietara mugatu. Zientziaren

14. In: *Elhuyar. Zientzia eta Teknika*, 100, 1995, 25. or.

15. BANDRES, Luis. "Fisikaren bideetatik abiatzen". In: *Elhuyar*, 1, 1974, 18-29.

16. FISIKA HIZTEGIA, UZEI, 1979.

17. KIMIKA HIZTEGIA, UZEI, 1980.

inguruan beti euskararen erabilpena arlo berrietara zabaltzen saiatu zen. Horren adibide da zientziaren historiaren inguruan egindako lana. 1984. urtean Elhuyar aldizkarian “Zientziaren ezaugarriak” izenburua zuen artikulua argitaratu zuen. Horrela hasten zen artikulua:

Lantxo honen bitartez, orain arte euskaraz oso gutxi ukitua izan den zientziaren alderdi bati hasiera eman nahi diot, hots, Zientziaren Historiari¹⁸.

Gai honen inguruan lan itzela burutu zuen Luisek. Artikulu-bildumaz gain, lau liburu ere argitaratu zituen. Lehenbizikoa 1992. urtean “Zientziaren historiografia-I (Aurrehistoriatik Erdi Aroarte)” kaleratu zen eta azkena, laugarrena, 2003. urtean.

Elhuyar elkartera itzulita, lehen aipatu da nola sortu zen lagun talde baten inguruan, bere hasierako ekintzak guztiz era amateurren betetzen. Hala ere, Luis Bandresen gidaritzapean taldea profesionaltasunaren aldera jotzen hasi zen:

Taldearen lanaren bolumena handiagotu ahala, Elhuyarrek nolabait profesionaltasunaren bidea jorratu behar zuela ikusi zen. 1977an egin zen urrats hori. Egun erdiko lanaldiarekin bi lagun jarri ziren lanean: bata, matematikaren didaktikarako taldean eta, bestea, administrari gisa¹⁹.

Aldaketa hori era natural batean egin zen, elkarte bertan amateurrek eta profesionalak, helburu berdinekin, ekintza ezberdinak baina era berean koordinatuak betetzen hasi baitziren.

70. hamarkadan euskara eta unibertsitatea uztartzen zituen beste gertaera bat aipatu behar genuke, Udako Euskal Unibertsitatearen sorrera, alegia. Luis Bandresek ere parte aktiboa hartu zuen erakunde horretan urte askotan zehar. UEUra lehenengo hurbilketa Elhuyar taldearen bidez izan zen. Horrela, Elhuyar aldizkariaren 2. alean, “Batasuna ekintzak dakar” izenburua zuen editorial batek Elhuyar eta UEU-ren arteko kolaborazioa aipatzen zuen:

[...] Arlo hauetan eta indar hauekin lortu dugu elkartasun bat: Donibane Lohitzuneko Udako Euskal Unibertsitatearen kudeatzaileekin. Ihazkoan egin genuen bezalaxe, aurrean ere zientzi gaien antolamendua elkarrekin daramagu eta programa interesgarri eta praktikoa batetara heltzeko asmotan gara²⁰.

Urte batzuk beranduago, Argia aldizkariari eginiko elkarrizketa batean, horrela gogoratzen zen Luis Bandres UEUn haien hasierako presentziatz:

Horregatik, 1973ko uztailean Donibane Lohizunen, aurreko urtean Baionako euskal kulturaren astearren barruan egin ziren hitzaldien segida bezala, Udako Euskal Uni-

18. BANDRES, Luis Maria. “Zientziaren ezaugarriak”. In: *Elhuyar*, 10, 1984, 373-378.

19. IRAZABALBEITIA, Inaki. “Urtez urte, ezina ekinez egina”. In: *Elhuyar. Iragana, oraina, geroa*. Usurbil: Elhuyar Kultur Elkarte, 1997, 17-25.

20. In: *Elhuyar*, 2, 1975, 2. or.

bertsitatearen lehen ekitaldia antolatzeko asmotan zebiltzala jakin genuenean, inolako zalantzarik gabe gure taldeko batzuk bertan parte hartzea erabaki genuen. Horrela, 1973ko txanda hartan bertan bildu ginen. Egituraz eta programaz eskas ginen, noski, baina gogoz eta asmoz beterik. Gaur egungo egiturearekin alderatuz, hura sailez osatutako zerbait antolatua baino, denok elkarrekin egindako mintegi-andana izan zen. Zenbat lagun elkartu ginen lehen txanda hartan? Ez dakit, baina oso gutxi izan ginela esan dezaket²¹.

UEUren inguruan Luis Bandresen ekarpena era desberdinetakoa izan zen. Horien artean ondoko hauek azpimarra ditzakegu: hitzaldiak, ikastaroak, artikulak eta liburuak eta, zer esanik ez, antolaketan buru belarri sartua ibiltzea. Luisen ikastaro baten parte-hartzea ondorengo adibidean ikus dezakegu:

1974ko uztailaren 15etik 20ra, Fisika eta Kimika ikastaroa eman zen Donostian, ikastoletako maisu-maistrentzat, Elizbarrutiaren babesarekin; Luis Mari Bandres, J. M. Goñi eta Mikel Zalbide izan ziren irakasleak, hirurak UEUko partaideak eta Elhuyarrekokideak²¹.

V. UEU ikastaroan, Luis Bandresen, Fisika saileko burua izanik, *Fisika* liburua argitaratu zuen, non 70 orritan oinarrizko kontzeptuak deskribatzen diren. Hurrengo urteetan, batzutan bera egile bakarria izanda eta besteetan Elhuyarrekoko beste lagunekin batera, ondoko liburuak kaleraturako ziren UEUren eskutik: *Energia* (1978), *Algebra bektoriala* (1978), *Akustika* (1978), *Elektromagnetika* (1979), *Elektromagnetika II* (1980), *Ekonomiaren hastapenak* (1980), *Teknologia elektrikoa* (1981), *Pneumatika I* (1982), *Termodinamika klasikoaren oinarriak* (1983). Denak batera kontuan hartuta, Luis-ek ia 1200 orri argitaratu zituen unibertsitate mailako gai teknikoak euskaraz idatziz. Hemen ere gogoratu behar dugu bere doktorego tesiaren gaia “El problema del ruido y la sordera en la industria” izan zela. Tesi horretan oinarritutako lanaz baliatuz Bandresen ekarpen batzuk egin zituen hiru lagunen artean argitaratutako *Akustika* liburuan. Hau izan daiteke, doktorego tesi batean oinarrituta, teknologiaren inguruan euskaraz argitaratu zen lehenetariko liburu baten kasua.

Lehen esan dugunez, Luis Bandresen parte hartzea ez zen mugatu alderdi zientifiko-teknikora bakarrik. Izan ere, UEU antolakuntzaren inguruan ere buru-belarri sartuta ibili zen. Horren lekuko dugu berarekin ekintza askotan batera ibili izan zen Inaki Irazabalbeitiaren testigantza:

Luis Mari Bandresen, Inaki Irazabalbeitia oroitzen denez, Hego Euskal Herrian dirua biltzen jardun zuen, Ipar Euskal Herrian lehen ikastaroak antolatu ahal izateko. Gerora ere, urte askoan UEUko talde eragileko kide izan zen²².

Elhuyar eta UEU erakundeak albora utzita (azken finean biak bere hobbytzat uler daitezke), profesionalki Bandres beti erakarri zuen irakaskuntzaren mun-

21. AIZPURU MURUA, Mikel. *Euskal Unibertsitatea euskal kulturagintzan: Hasierako urteak 1973-1984*. Bilbo: UEU, 2003, 43. or.

22 http://www.idazleak.org/idazleak/idazlea.php?idazle_id=40.



Elhuyarren XXV. urteurrena zela medio Luis Bandresi egindako elkarrizketan ateratako argazkia.

duak. Ibilbide hau Don Bosco ikastetxean hasi zuen, baina bere ekintza oparoenak eta denboran zehar luzeenak Euskal Herriko Unibertsitatean izan ziren. Han Donostiako Kimika Fakultatean eta Eskola Politeknikoan izan zen irakasle urte askotan, eta zenbait ikasle ohien ahotan entzunda, oso irakasle ona omen zen gainera.

Zientzia eta teknologiaren gaietan irakasle izanik, Luisek ezin izan zion uko egin euskararen erabilpenaren inguruan militante aktiboa izateari. Hau da, bere ekarpenak Elhuyar eta UEU erakundeetara zein ere bere eguneroko lan eginkizunetara zabaltzen ziren. Horren adibide garrantzitsuenetariko bat Kimika Fakultatean dugu:

1975ean, Kimika Fakultatea sortu zen Donostian, eta Luis Mari Bandres bertako idazkari izendatu zuten. Kargu hartatik, ahalegin handia egin zuen irakasle euskaldunak sartzeko fakultatean, eta gero euskarazko klaseak bultzatzeko unibertsitatean²³.

Antxon Santamaria, Kimika Fakultatean katedraduna, izan zen garai hartako testigu aparta. Bera izan zen EHUn klaseak aurrenekoz euskaraz eman zituen

23. URZELAI, Peio. "Luis Mari Bandres Unanue. Euskararen ekintzaile". In: *Berria*, 2009/12/04.

irakaslea eta horrela kontatu zuen zer nolako pausoak eman ziren egun horietan helburua, ia amets hutsa zena, atxikitzeko:

Fakultatea 1975-76an sortu zen, Valladolideko Unibertsitatera adskribatutako zentro bezala. Hasieratik Luis Mari Bandres izan zen bertako idazkaria eta euskara bultzatu zuena. Bandres idazkaritzarekin lanpetuta zegoenez, 1976-77an bigarren mailako Mekanikako problemak euskaraz eman nitzan proposatu zidan. Berak antolatu zuen guztia, bion artean materiala prestatu eta aurrera, errekonozimendu ofizialik gabe, baina talde bat osatu zen. Hurrengo urtean Bandresek hirugarren mailako Elektrizitatea eman zuen eta neronek lehenengo mailako Fisika²⁴.

Gainera, Luis Bandresek unibertsitatean eginiko lana ez zen bere fakultatera soilik mugatzen, eragin nabarmena eduki baitzuen beste kideengan ere. Hori kontuan hartuta, Anjeles Iztueta irakasleak horrela kontatzen zuen nola hasi zen lankide batzuen adibideak jarraituz euskararen erabilpena unibertsitatean zabaltzen:

Joxerramon Etxeberria, Luis Mari Bandres eta beste lagun batzuk zientzia fakultatean hasiak ziren fisika eta kimika euskaraz ematen eta haiek eredu harturik, nik eman nituen garai hartan lehen matematika klaseak euskaraz Sarrikon²⁵.

Bi adibide hauetan argi eta garbi agerian gelditzen da Luis Bandresek bere bizitzan zehar bera zebilen proiektuetan bere inguruko inplikazioa lortzeko erakutsi zuen ahalmena. Sartuta zebilen euskararen aldeko ekintzetan sinesten zuen eta sinesmen hori besteei transmititzeko eta besteak konbentzitzeko gai zen. Horregatik, bai Elhuyar inguruan bai UEUn zebiltzan lagun asko Luisi esker bilakatu ziren erakunde horietariko kide aktibo. Edozein solasaldi edo une ona zen Luisentzat proiektu horien garrantziaz mintzatzeko eta, era berean, hurrengo bilerarako gonbidapena zuzena bidaltzeko. Hona horren adibide bat Joxerra Aizpuruak idatzia:

Iruñean -1982ko udan- ezagutu nuen, UEUk antolatzen zituen jardunaldietan. Alfabetatze teknikoko ikastaroa izan genuen elkargunea. Hura irakasle zen, izen handiko ingeniaria, ordurako. Ni, ikasle soila. Pare bat hitz egin orduko, Elhuyar-en parte hartzeko gonbitea luzatu zidan. Eta, nola diren gauzak, orduan ez nuen imajinatu ere egin, hurrengo hamahiru urteak inondik ezagutzen ez nuen talde hartan emango nituenik. Gogoko zuen Elhuyar aldizkarian idaztea. Gogoko zuen, bereziki, fisikako gaiak era ulergarrian ematea²⁶.

Euskal Herrian gure kulturaren inguruan murgiltzen den erakunde garrantzitsuenetariko bat Eusko Ikaskuntza da. Hori horrela izanda, Luis Bandresek ezin zuen erakunde horren ekintzetatik at gelditu. Eusko Ikaskuntza 1978. urtean

24. "Eta euskara goi mailako hezkuntzara heldu zen". In: *Kampusu. Euskal Herriko Unibertsitatearen aldizkaria*, 70, 2010, 7. or.

25. ASURMENDI, Mikel. "Anjeles Iztuetai elkarrizketa, Matematika batez ere lengoia da, Zientzien lengoia". In: *Euskonews*. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 518, 2010.

26. AIZPURUA, Joserra. "Libra gaitzela epelkeriatik". In: *Argia*, 2216, 2010-01-31.

abian berriz jarri zenetik bazkide izateaz gain, "Zientzia Fisiko-Kimikoak eta Matematikak" sailaren arduraduna ere izan zen 1980 eta 1985a artean. Tesuinguru horretan Luisek *RIEV* aldizkarian "Zientzi sailaren bibliografia" argitaratu zuen. Fisika, Kimika, Matematika, Administrazio Teknikak eta Teknologiak arloetan ordura arte euskaraz argitaratutako idazlanen zerrenda luzea zen²⁷.

Atal hau bukatzeko, Luis Bandresek ibilbide profesionalean eduki zituen bi ardurak azpimarratu beharko genituzke. Alde batetik, Bergarako UNED Unibertsitateko zuzendari kargua bete zuen 1979-1985 urteetan. Garai hartan, ohiko irakaskuntzez gain, beste ikastaro batzuk antolatu ziren ikastoletako irakasleen tituluen normalizazioa bideratzeko eta euskararen alfabetatze prozesua areagotzeko. Ikastaro horiei esker lagun askorentzat Bergarako UNED aste-bukaeretakako topagune bilakatu zen²⁸.

Bestetik, 1984. urtean UPV/EHU-ko Donostiako Udako Ikastaroen III. edizioaren zuzendaria izan zen Luis Bandres Goio Monreal errektoreak izendatua. Hori zela eta, *Argia* aldizkarian Luis Bandresi elkarrizketa egin zioten. Solasaldi hartan Bandresek bere aburuz Ikastaroen eginkizuna zein izan beharko litzatekeen zehaztu zuen. Hauek dira bere hitzak:



Elhuyar Fundazioaren Patrono batzuen argazkia bileratik ateratzean 2005. urtean.

27. BANDRES UNANUE, Luis M^a. "Zientzi sailaren bibliografia". In: *RIEV*, 29. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1984, 141-144.

28. FERNANDEZ, Idoia. *Oroimenaren hitza*. Bilbo: UEU, 1994, 232. or.



Famili giroan.

Unibertsitate guztiek udazken, negu eta udaberrian izaten dituzte beren eginkizunak. Baina hor parte hartzen duten bakarrak matrikulatuta daudenak eta urtetik urtera horretan dabilzanak dira. Gauza asko egiten dira unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitateak pentsatu du zabaldu egin behar direla gauza horiek gizartera. Behintzat gizarteari aukera eman behar zaio unibertsitatean egiten denaren berri edukitzeko. Gero gizarteak hartzen duen edo ez beste gauza bat da, baina unibertsitateak publikoa denez gero erantzun egin behar dio mantentzen duen gizarte horri. Hori litzateke lehen helburua: jendea unibertsitatean egiten dena ikusteko aukera ematea. Unibertsitatea gizartearekiko hurbiltzea. Bestea izango litzateke, gai baten inguruan puntan dauden ikertzaile eta irakasleak biltzea. Pertsonalki elkar ezagutu dezate. Ikusi, elkartu eta eztabaidatu. Eta hirugarren helburua ere bigarren honekin loturik letorke. Gure unibertsitatea berria da, ez dugu aukerarik izan kanpoko unibertsitateak eta haien bide eta tresnak ezagutzeko. Nahiko izan da autoformaziozkoa. Beharrezkoa da irakasleak kanpora bidaltzea. Baina horretarako ezinbestekoa da alde zuzenetik elkar ezagutzea eta horretarako oso arosak dira ikastaro hauek. Honela irakasleak etorri kanpotik eta konbenioak zintatu ahal izan dira kanpoko eta EHUren artean²⁹.

29. I.U. "Luis Mari Bandresekin EHUko udako ikastaroei buruz". In: *Argia*, 1026, 1984-09-09.

Eta ildo berdinetatik jarraituz, horrela bukatzen zen Luisek urte hartako memoriarako prestatu zuen testua:

Unibertsitatearen barnean sortzen den kulturak ez du hormen tartean gelditu behar, horma horietatik Gizarte osora hedatu eta bere inguruan txertatuta gelditu behar du³⁰.

Lerro hauetan beste behin argi islatzen da Luis Bandresek dibulgazioarekiko erakusten zuen sentsibiltatea, era zabal batean ulertua eta maila eta gizartearen esparru desberdinetara bideratua.

3. KARGU POLITIKOEN GARAIA

Aurreko lerroetan Luis Bandresek 1985. urtean hiru erakunde desberdinetan zituen ardurak utzi egin zituela esan dugu, hain zuen, Elhuyar-en, UNED-en eta Eusko Ikaskuntzako Zientzia Sailaren zuzendaritzak. Gainera, UPV/EHU-ko Udako Ikastaroen ardura ere alde batera utzi zuen. Ingumara, euskarazko datu-basea, bagoaz³¹, Luis Bandres unibertsitate mailako ia 90 lan desberdinetan azaltzen da egile gisa. Argitalpenaren datak begiratzera, 1986. urtean etena nozitzen da eta bost urteetan zehar luzatzen da eten hori. Luis Bandresek Ardanza Lehendakariaren gobernuan Kultura eta Turismo Sailburu kargurako izaniko izendapena zegoen erabaki guzti horien atzean. Ardura hori hartzerakoan garbi gelditu zitzaion Luisi ezin zuela jarraitu, askotan lanorduz kanpo, hainbeste ekin-tzetan sartuta. Aldaketa handia izan zen bere bizitzan.

Garai hartako inplikazioa ulertzeko Amatiñok idatzi zuen esaldia ekartzen dugu gogora: "Ironiatik (heldu zen) konpromisora eta alderdi-jardueratik politikagintzara"¹.

Eta ildo horretatik jarraituz, elkarrizketa batean azaldu zuen Luisek berak politika profesionalera egin zuen jautzia. Hauexek dira kazetariaren galdera eta bere erantzuna:

Kazetaria. Elhuyar, EHU... Gauza asko utzi zenituen, Jaurlearitzara joateko. Harridura izan zen askoren erantzuna. Bapateko aldaketa bat izan al zen hura, edo aspalditik zetorren erabakia?

Luis Mari Bandres. Bi urte neramatzan EAJko afiliatu bezala. Ez dakit zer arrazoiengatik deitu zidaten. Ardanza jaunak jakingo du inork baino hobeto. Baina nik zer-bait egiteko gai nintzela uste nuen, eta ahaleginak egin nituen. Gauza batzuk lortu nituen eta beste batzuk ez⁸.

30. Donostiako Udako Ikastaroak, 1984, 4. or., <http://www.sc.ehu.es/scrwwwsu/2010/dossier/03.pdf>.

31. Inguma. Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-basea. www.inguma.org.



Gipuzkoako Foru Aldundian bere bulegoan Foru Diputatua zenean.

Kargu horretan bi urte eta erdi pasa zituen, baina politikaren munduari lotuta jarraitu zuen bizitza osorako. Horrela, Eusko Legebiltzarrean III., IV. eta V. Legegintzaldietan, hau da ia 13 urte luzeetan, ardura desberdinak eduki zituen, legebiltzarkide zein zenbat batzordetako kide bezala³². Aipatzekoa da gainera, askotan bere jarduera politikoak kultura eta unibertsitatearekin lotura handia zuela.

Eusko Legebiltzarretik Gipuzkoako Diputaziora pasa zen. Han 1995-1999 urteetan Gizartegintzako Diputatu eta 1999-2003 legealdian Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Diputatu karguak bete zituen. Horrez gain, azpimarratu behar da EAJ alderdian bertan EBBaren hasieran eta gero GBBaren kide izan zela.

Hala ere, politika mundura eginiko saltoa ez zen aitzakia izan Luisentzat bere irakasle eginkizunak baztertzeko, EHUko Donostiako Eskola Politeknikoan klaseak ematen jarraitu baitzuen. 1991. urtean unibertsitate-eskolako katedraduna izatea lortu zuen Ingeniaritza Elektrokoan eta 1993-1995 aldian Eskola Politeknikoaren zuzendari aukeratu zuten.

4. DIBULGAZIOAN MURGILDUTA

Politikan sartzeak eta horretan luze jarduteak, Bandresek zituen kultura elkartearen ardura-karguen bukaera ekarri zuen. Hala ere, gure iritziz, egoera

32. http://www.parlamento.euskadi.net/fichas/e_106.html.

berriari irtenbide aurkitu zion eta betidanik erakutsi zuen dibulgaziorako grina eta ahalmena, areagotu zitzaizkion. Ondorioz, artikulu eta liburu-kopuru handia argitaratu zuen 1991. urtetik aurrera. Haien artean, lehen aipatutako Zientziaren Historiografiari buruzko lau liburuak daude. Horrez gain, *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkarian etengabe kaleratu zituen artikuluak, beti dibulgazioaren inguruan. Ohiko gaiez gain, garai horretan beste jakintza-arloetara ere hurbildu zen idazte unean. *Jakin* aldizkarian “Politika erlijio bihurtuta. Marxismo-Leninismoa eta Fazismoa” izenburuarekin argitaratu zuena dugu horren adibide³³.

Idazteko zuen erraztasunaz baliatuz, Bandresen iritzi-artikuluak (euskaraz batzuetan eta gaztelaniaz bestetan) egunkarietan ere ohiko bihurtu ziren, nagusiki azken urteotan, eta era horretaz publiko osora iritsi zen. Gainera, dibulgazio orokorrari eutsi zion eta ohiko bihurtu zen egunkari batean bere iritzi-artikulu bat ikustea eta, ia aste berean, beste artikuluren bat azaltzea biografia bati buruz edo historiaren gertaera baten inguruan. Kasu guztietan informazio baliotsua zabaltzen zuen. Horren adibide batzuk ondorengo izenburuetan aurkitzen ditugu: *Danborra, Hamabostaldia, Gros auzoaren sorrera, J.M. Gonzalez Bastida eta Musikaste 2008*.

Eta horretarako edozein argitalpen-mota bide egokia zen. Artikuluak berarentzat ohiko izan ziren argitalpenetan azaltzen ziren batzuetan (horren adibidea *Txistulari* aldizkaria da), argitalpen berriagotan besteetan (*Irutxuloko Hitza, Noticias*,...) edo baita teknologia berriek eskura jarri dizkiguten baliabide berrietan ere (*erabili.com, izaronews*,...).

Etengabeko lan hauetan zebilenean iritsi zitzaion gaixotasuna Luisi eta horrekin heriotza. Kristau ikuspuntu batetik hartu zuen, lasaitasunez bizitzaren azkenaldia eta, era berean, euskal kulturgintzarekiko konpromisoa (eta gauza bera esan beharko genuke bere abertzaletasunarekin) mantendu zuen azken unera arte. Horren adibide dugu, Elhuyarren kasua. Fundazioa bihurtu zenetik patronoa izan baitzen, bileretan bere ekarpenak egiten batzuetan eta isilean laguntzen bestetan. Horrela jarraitu zuen nahiz eta gaixo egon. Bere osasunaren mugak gaindiezinak gertatu zitzaizkionean soilik, eta zaratarik egin gabe, aurkeztu zion Patronatoari bere dimisioa.

Ez nituzke lerro hauek bukatu nahi kutsu pertsonala eman gabe. Beste lagun askori gertatu zitzaion bezala, nire hurbilketa Elhuyar eta UEUra Luis Bandresi esker izan zen. Hori dela eta, Luisi eskerrak eman nahi nizkioke, gure bizitzaren une berezietan, tren batekin egiten den bezala, berak orratz-zain funtzioa betetzear, euskararen garapen osoaren aldera bideratu gintuelako.

Agur eta ohore, Luis Bandres.

Jose M. Rodríguez Ibabe

33. BANDRES, Luis. "Politika erlijio bihurtuta. Marxismo-Leninismoa eta Fazismoa". In: *Jakin*, 140, 2004, 127-134.